

EUSKALDUNTZE-ARLOA:	ERABILERA-PLANEKIN LOTUTAKO PRESTAKUNTZA
MODALITATEA:	LINEAKOA
HIZKUNTZA:	EUSKARA

BILERA-DEIA, ESKABIDEA ETA ZIURTAGIRIA

INFORMAZIO OROKORRA

IRAUPENA	20 ordu	HARTZAILEAK	EAEko Herri Administrazioetako langileak
BETE BEHARREKO BALDINTZAK	2HE edo 3HE gaindituta izatea. Eskaerak egin dituzten erakunde guztietako gutxienez langile bana onartzea lehenetsiko da.		
LEHENTASUNA	Erabilera-planaren eraginpean dauden langileek lehentasuna izango dute ikastaro honetan parte hartzeko.		
TUTORETZAK	Ikastaroan tutoreak honako lanak egingo ditu: <ul style="list-style-type: none">Mezu bat bidaliko dio ikasleari ikastaroari ongi etorria emateko plataformaren bitartez.Kontsultak jaso eta argitu:<ul style="list-style-type: none">Ikastaroaren EDUKIArekin zerikusia dutenak, plataformako foro eta plataformako bestelako baliabideen bidez.Erantzuna 24 orduan emango dute.Ikaskuntzaren jarraipena eta ebaluazioa egin.		
IKASTARO ESKAINTZA	Irailaren 3tik 27ra		
ESKATZEKO AZKEN EGUNA	Uztailaren 20a		
ONIRITZI EPEA	Uztailaren 23tik 30era		

ZER LORTU NAHI DA

HELBURU OROKORRAK	Bilera-deiak, eskabideak eta ziurtagiriak euskaraz idazteko oinarrizko irizpideak ikastea.
GAITASUNAK	Ikasleak prestakuntza ekintza amaitzean egoki erabiliko ditu: <ul style="list-style-type: none">Bilera-deia idazteko oinarrizko irizpideak.Eskabidea idazteko oinarrizko irizpideak.Ziurtagiria idazteko oinarrizko irizpideak.Testu elebidunak idazteko oinarrizko irizpideak.

PROGRAMA ETA EBALUAZIOA



EUSKALDUNTZE-ARLOA:	ERABILERA-PLANEKIN LOTUTAKO PRESTAKUNTZA
MODALITATEA:	LINEAKOA
HIZKUNTZA:	EUSKARA

METODOLOGIA

Autoprestakuntzako lineako ikastaroa da, teoria eta praktika uztartzen dituena. Ikastaroak 5 atal nagusi ditu eta, bertan, hainbat unitate didaktiko. Unitate bakoitzean leiho tutorial baten bidez teoria landu eta programak berak edo norberak zuzentzeko ariketa batzuk proposatuko dira; gainera, programak aukera ematen du jarraibideak ikusteko, entzuteko edota irakurtzeko. Horrez gain, unitate gehienek tutoreari bidali beharreko jarduera bana izango dute. Irakasle batek gidatuko du ikasle-taldea, eta bakoitzaren urratsak jarraituko ditu.

PROGRAMA

1. Atarikoa

- Ongietorria eta nabigazioa.
- Ikastaroaren helburua.
- Ikastaroaren atalak.

2. Bilera-deia

Diseinua

- Egitura.
- Hartzaillearen datuak.
- Izenburuak eta azpi-izenburuak.
- Hasierako eta bukaerako agurrak.
- Oharrak.
- Bilerari buruzko datuak.
- Partaideak.
- Aztergaiak.
- Izenpea.
- Toki-egunak.

Gramatika

- Letra larria eta letra xehea.
- Nagusia, nagusia.
- Beste bat, bestea, berria.
- Komuntadura.
- Erdia.
- Guztia.

Estiloa

- Erdal formulak euskaraz.
- Kalkoak saihestu.
- Erdal gerundioaren erabilera okerra.
- Egilea agerian utzi.

PROGRAMA

3. Ziurtagiria

- Egitura eta osagaiak:
 - Izenburua eta azpi-izenburuak.
 - Interesdunen datuak.
 - Egiaztapena.
 - Informazio osagarria.
 - Amaierako esaldia.
 - Egiaztatzailearen datuak.
 - Toki-egunak.
- Parentesiak.
- Letra etzana.
- Denbora-tarteak.
- Informazio osagarria.
- Amaierako esaldia.
- Erdal formulak euskaraz.



EUSKALDUNTZE-ARLOA:	ERABILERA-PLANekin LOTUTAKO PRESTAKUNTZA
MODALITATEA:	LINEAKOA
HIZKUNTZA:	EUSKARA

4. Eskabidea

- Egitura eta osagaiak:
 - Izenburua eta azpi-izenburuak.
 - Eskatzailearen datuak.
 - Azalpena.
 - Eskaera.
 - Aurkeztutako agiriak.
 - Azken esaldia.
 - Izenpea.
 - Toki-egunak.
- Alferrikako erlatiboak.
- Estilo nominala.
- Hitzen egokitasuna.
- Hitz elkartuak.
- -go atzikia eta izen multzokariak.

5. Testu elebidunak

- Nola diseinatu testu elebidunak.
- Nola nabarmendu hizkuntza bat.

BAJA EMATEKO EPEMUGA

Ikastaroa hasi aurreko azken laneguna.

EBALUAZIOA

Ebaluazioaren helburua: Ikastaroaren helburu orokor eta zehatzak bete edo lortu direla bermatzea.
Ikastaroak 6 jarduera ditu eta horietan oinarrituko da ebaluazioa. Ikasleak ikastaroko jarduerak egin eta bidaliko dizkio irakasleari, honek ikasleari zuzendu eta lanaren feedbacka eman diezaion. Era berean, tutoreak gomendatuko du edukiak noizko ikasi eta jarduerak noizko egin behar diren.

IKASTAROAREN BALORAZIOA

Ikasleen lineako gogobetetze-inkesta plataforma barruan dago ikastaroko edukien azpian.

ZIURTAGIRIA: APROBETXAMENDUA

Aprobetxamenduko ziurtagiria lortzeko bete beharreko baldintzak:

- > Irakasleari ikastaroko jarduera guztiak bidali.
- > Ikastaroko 6 jardueretatik 5ek, gutxienez, gai kalifikazioa jasotzea.

IVAPek igorriko ditu ziurtagiriak zerbitzu zuzendaritzetara edo antzekoetara.

PREZIOA

137€

AGINDUA, 2014ko abenduaren 11koa, Herri Administrazio eta Justiziako sailburuarena, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeak ematen dituen jarduera eta zerbitzuen prezio publikoen zenbatekoa ezartzen duena.

EHAA, 2014ko abenduaren 30ekoa, 248. zk.

